



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Negoiazioen hasierari eta negoziatzeko gidalerroak erabakitzeari buruzko oharra (Europako Batzorderako negoziazio agindua)

Gai Orokorren Kontseiluaren bilera (EBTren 50. artikulua)

Europar Batasuneko 27 Estatu kideen Atzerri Arazoetako ministroak 2017ko maiatzaren 22an bildu ziren, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak EB uzteko modalitateak ezartzen dituen akordio bat harekin izenpetzeko negoziazioak egin ditzan Batzordeari baimena ematen dion Kontseiluaren Erabaki Gomendio proposamena eztabaidatzeko.

27 Estatu kideetako ministroez gain, Europako Batzordearen izenean, Frans Timmermans, Legedia Hobetzeko, Erakunde arteko Harremanetarako, Zuzenbide Estaturako eta Oinarritzko Eskubideen Gutunerako lehendakariordea, eta Michel Barnier, Erresuma Batuekin Negoziatzeko negoziatzaile burua, bildu ziren.

Gomendio proposamena Komisario Elkargoak 2017ko maiatzaren 3an bidali zuen Kontseilura. Osagai hauek ditu:

- *Negoizazioak hasteko baimena ematen duen eta Batzordea EBren negoziatzaile izendatzen duen **erabakia**.*
- ***Negoizatzeko gidalerroak** (eranskinean).*

Onartutako testuek Europar Kontseiluak 2017ko apirilaren 29an erabaki zituen orientazioak osatzen dituzte, eta negoziazioen lehen fasea burutzeko behar diren xedapen zehatzak ezartzen ditu. Proposamenak 27 Estatu kideek proposatutako fase biko planteamendua islatzen du, eta lehentasuna ematen die Erresuma Batuak Batasuna modu ordenatuan uztea bermatzeko behar diren arloei..

*Gomendioaren testua onartzeaz gain, Ministroek hasi egin zituzten Erresuma Batuekiko negoziazioei buruzko **Europar Kontseilurako prestakizunak**, 2017ko ekainaren 22 eta 23an egingo baita; aztergai zerrenda aztertu zuten.*

*Halaber, Kontseiluak **ad hoc Lantalde bat sortzea erabaki** zuen, 27 Estatu kideren ordezkariak osatua, Erresuma Batuak EB uzteari buruzko negoziazioetan Kontseilura eta Coreper-era joango dena.*

*Azkenik, ministroek negoziazioen **gardentasunerako oinarritzko printzipioak** ezartzen dituen testua onartu zuten.*

Bileraren ondorengo bazkarian Brexitari buruzko eztabaida orokor bat egin zen. Guy Verhofstadt Brexita negoziatzeko Europako Parlamentuaren ordezkariak parte hartu zuen.



ERABAKIA

Aitzinsolasean, Erabakiak EB modu ordenatuan uzteko hitzarmenari buruzko negoziatioei eta etorkizuneko harreman esparruaren eta edozein xedapen iragankorren gaineko atariko eztabaidei aplikatuko zaizkien oinarritzko printzipioak berriro adierazten ditu. Printzipio horiek 2017ko apirilaren 29an onartu zituen Europar Kontseiluak:

- Eskubide eta eginbeharren arteko oreka eta ekitatezko baldintzak bermatzea;
- Merkatu bakarraren osotasuna babesteak ikuspegi sektorialean oinarritutako partaidetza oro baztertzen du;
- EBkoa ez den hirugarren herrialde batek, ez ditu Estatu kide batek dituen eginbehar berberak, eta horregatik eskubide eta onura berak ere ezin ditu eduki;
- Merkatu bakarrean parte hartzeko 4 askatasunak onartu behar dira;
- Negoziatioak modu unitarioan eramango dira, hau da, ezer ez dago hitzartuta dena hitzartuta egon arte;
- Akordioak EBren beregaintasuna errespetatu behar du beronen erabakimenean eta EBJAri dagokionez.

Xedapenak 3 artikulatu ditu:

- Lehenak baimena ematen du negoziatioak hasteko eta Batzordea izendatzen du EBren negoziatzaile.
- Bigarrenak, negoziatioak, 2017ko apirilaren 29an Europar Kontseiluak erabakitako orientazioen argitan eta erabakiari eransten zaizkion gidalerroen arabera gauzatuko direla adierazten du.
- Erabakia Batzordeari zuzenduta dago.

NEGOZIATZEKO GIDALERROAK

Negoziatzeko gidalerroek lau eremu nagusi hartzen dituzte: herritarren eskubideak, finantzen likidazioa, Ipar Irlandaren egoera eta desadostasunak konpontzeko eta hitzarmenaren gobernantzarako xedapenak.

EB uzteko hitzarmenaren helburua

- Hitzarmenak EB uzteko modalitateak ezartzen ditu, etorkizunean Batasunarekin izango dituen harremanen esparrua kontuan hartuta.
- Helburu nagusia EB modu ordenatuan uztea da.
- Hitzarmena Europar Kontseiluak 2017-04-29an erabakitako orientazioen argitan negoziatuko da.
- Negoziatzeko gidalerroak orientazioetan inspiratuta daude, eta Batasunaren negoziatioetarako posizioak garatzen dituzte orientazioetan jartzen diren helburu, printzipio eta posizioei errespetu osoa erakutsiz. Negoziatzeko gidalerroak aldatu eta osatu ahal izango dira negoziatioak irauten duten bitartean, behar izanez gero.

Hitzarmenaren izaera eta aplikazio eremua

- Hitzarmena Batasunak negoziatu eta izenpetuko du. EBTren 50. artikulua salbuespenezko eskumen horizontala ematen dio Batasunari EB uztea antolatzeko behar diren arloak zehazteko. Batasunaren uzte ordenatua lortzeko xede hutsarekin ematen zaio. Eskumen hori baliatzeak ez dio eragingo Batasunaren eta Estatu kideen arteko eskumen banaketari.
- Batasuneko zuzenbidea ez da aplikatuko Erresuma Batuan EB uzteko hitzarmena indarrean hasten den egunaz gero.
- Batasuneko zuzenbidea ez zaie aplikatuko Erresuma Batuarekin harreman bereziak dauzkaten herrialdeei eta itsasoz haraindiko lurraldeei ezta kanpo harremanak Erresuma Batuaren menpean dituzten Europako lurraldeei ere.
- Hitzarmenak EB uzteko egun bat jarri beharko du, eta beranduenez martxoaren 30 izango da 00:00an.

Negoziatzeko gidalerroen helburua eta nondik norakoa

Negoziazioak fase bitan garatuko dira, eta negoziatzeko gidalerro hauek lehen faserako dira, hau da, Erresuma Batuak EB modu ordenatuan uztea bermatzeko behar-beharrezkotzat jotzen diren gaiak jorratuko diren faserako:

- Herritarrei, enpresei, alde interesdunei eta nazioarteko kideei argitasunik eta segurtasun juridikorik handiena ematea.
- Erresuma Batua Batasunetik eta estatu kide gisa bereganatu dituen konpromisoen ondoriozko eskubide eta eginbehar guztietatik deslotu beharra antolatzea.

Herritarren eskubideei, finantzen likidazioari, EB utzi aurretik merkatuan sartutako produktuen egoerari eta Batasuneko zuzenbideari darizkion prozedurei buruzko gaiez gain, negoziatzeko gidalerroek beste arlo batzuei ekiten diete:

- Irlanda: hitzarmenaren xedapenek ez diete inondik ere Ostiral Santuko Akordioan finkatu ziren helburu eta konpromisoei kalterik egin behar. Negoziazioek ardua berezia jarri behar dute Irlandan muga fisiko bat eraikitzea saihesten, aldi berean Batasunaren ordenamendua errespetatuz. Ipar Irlandan bizi diren Irlandako herritarrek Batasuneko herritar izateak ematen dizkien eskubideez gozaten jarraituko dute, eta, aldi berean, Irlandaren eta Erresuma Batuaren artean indarrean dauden alde biko hitzarmenak aitortu behar dira (hala nola, CTA).
- Zipreko Errepublikaren eta Erresuma Batuaren arteko alde biko hitzarmenak, Zipren Erresuma Batuaren subiranotasuneko eremuetan aplikatzekoa dena, aitortu egin behar da, betiere Batasunaren ordenamenduarekin bat badatoz.
- Batasunak Erresuma Batuan dituen interesek behar duten babesa bermatu behar du akordioak.
- Akordioaren gobernantza orokorrari buruzko xedapenak jaso behar ditu akordioak, bai eta Batasunaren autonomia guztiz errespetatzen duten betetze eta desadostasun-konpontze mekanismo eraginkorrak ere.
- Erresuma Batuarekin elkarrizketa eraikitzaile bat eduki behar da, negoziazioen lehen fasean, elkartutako hirugarren herrialdeekiko eta nazioarteko antolakundeekiko/konbentzioekiko ikuspegi komuna izan ote daitekeen EB utzi aurretik hartu eta Erresuma Batuak lotuta jarraitzen duen nazioarteko



konpromisoei dagokienez.

- Kontseiluak lehen fasean nahikoa aurreratu dela erabakitzen duenean eta hurrengora igaro daitekeela irizten dionean, negoziazio gidalerro berriak landuko dira. Xedapen iragankorren xede izan daitezkeen gaiak (etorkizuneko harremanen esparruranzko zubia, adibidez) hurrengo negoziazio gidalerroetan sartuko dira. Xedapen iragankor horiek argi zehaztu beharko dira, denboran mugatuak eta betetze mekanismo eraginkorren mendekoak izan beharko dute.

1. Herritarren eskubideak

Akordioak, EB uzteko egunean Batasuneko zuzenbidetik eratortzen diren estatutua eta eskubideak babestu behar dizkie:

- Erresuma Batuan bizi diren edo bizi izan diren eta lan egiten duten edo lan egin izan duten 27en EBko herritarrei.
- 27en EBn bizi diren edo bizi izan diren eta lan egiten duten edo lan egin izan duten Erresuma Batuko herritarrei.

Geroago gozatu behar direnak ere sartzen dira, adibidez, bizisarien eta erretiroaren inguruko eskubideak.

Ezarritako bermek elkarrekikoak izan behar dute eta herritar guztien tratu berdintasunaren printzipioan oinarritu behar dute, Batasunaren ondareak ezartzen duen eran.

Eskubide horiek eskuratutako eskubideen gisa babestu behar dira, zuzenean eskatzekoak baitira interesdunaren bizitza guztian.

Eskubideak administrazio prozedura sinpleen bitartez egikaritu ahal izango dira.

Akordioaren gutxienerako edukiak hauek izan beharko dute:

- Akordioaren aplikazio eremuan sartu behar diren pertsonak zehaztu behar dira:
 - Bat etorri behar du 2004/38¹ Zuzentarauarekin: pertsona ekonomikoki aktiboak (inoren konturako edo norberaren konturako langileak) edo pertsona ez-aktiboak, EB utzi aurretik Erresuma Batuan edo EB27n bizi izan direnak, eta eurekin doazen familiako kideak edo eurekin edozein unetan elkartzen direnak, EB utzi aurretik nahiz ondoren.
 - Mugako langileak hartu behar ditu (883/2001 Arautegiak estaltzen ditu).
- Babestu behar diren eskubideak zehaztu behar dira: Gutxienez eskubide hauek hartu behar ditu:
 - EBTren 18, 21, 45 eta 49. artikuluetatik eratortzen diren eta 2004/38 Zuzentaruauan ezartzen diren bizileku eskubideak, bai eta

¹ Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 2004/38 Zuzentaruaua, 2004ko apirilaren 29koa, Batasuneko herritarrek eta euren familietako kideek estatu kideetako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruzkoa, 1612/68 zk. (CEE) Arautegia aldatzen duena eta 64/221/CEE, 68/360/CEE, 72/194/CEE, 73/148/CEE, 75/34/CEE, 75/35/CEE, 90/364/CEE, 90/365/CEE eta 93/96/CEE Zuzentaruauak indargabetzen dituena. EBAO, L 158, 2004ko apirilaren 30ekoa.

eskubide horiekin erlacionatutako arauak ere; bizileku eskubidearen inguruan jaulkitzen diren agiri guztiek izaera adierazlea izan behar dute eta prozedura simple eta bizkor baten bidez lortu behar dira.

- Gizarte segurantzako sistemen koordinazioari buruzko 883/2004 Arautegian² eta berau aplikatzeko Arautegian (987/2009 Arautegia³) ezartzen diren eskubide eta eginbeharrak, totalizazio eskubidea, prestazioen esportazioa eta legedi aplikagarri bakarraren printzipioa barne hartzen dituztenak.
- 492/2011 Arautegian⁴ EBko langileen zirkulazio askeari buruz ezarritako eskubideak. Adibidez: lan merkaturako sarbidea, jarduera bat egiteko eskubidea, gizarte eta zerga abantailak, etxebizitza eta eskubide kolektiboak.
- Norberaren kontura jarduera bat hasteko eta egiteko eskubidea (EBTren 49. artikuluan aitortua)

Azkenik, akordioak –bai Erresuma Batuan bai EB27n–,

- Bermatu egin behar du Batasuneko edozein estatu kidean lortutako diplomak, ziurtagirien eta bestelako titulu onartuen babesa.
- Bermatu egin behar du hirugarren herrialde batean lortutako eta EB utzi aurretik Batasuneko edozein estatu kidean onartutako tituluak onartzen jarraituko dela EB utzi ondoren ere.
- EB uzteko unean bidean dauden onarpen prozedurei buruzko xedapenak jaso beharko ditu.

2. Finantzen likidazioa

Erresuma Batua Batasuneko izan den aldi guztian Erresuma Batuak eta Batasunak hartu dituzten eginbeharrak biek errespetatuko dituztela ziurtatu behar du.

Finantzen likidazio bakarra egin behar da:

- Batasunaren aurrekontuarena
- Tratatuak ezarritako organo eta erakunde guztietako kide izateari Erresuma Batuak uztearena (adibidez, EIB, EBZ)
- EBren politikari buruzko berariazko funts eta mekanismoetan Erresuma Batuak izan duen partaidetzarena (adibidez, EGAF edo Iheslarietzako Turkiako Mekanismoa)

Erresuma Batuak Batasuneko kide zela hartu zituen eginbehar guztietan dagokion parte proportzionala ordaindu behar duelako printzipioan oinarritu behar du finantzen likidazio bakarrak. Eginbehar horiek pasiboak (pasibo kontingenteak barne) eta Finantza Arautegiaren 54. artikularen arabera oinarritzko egintza batetik eratortzen den beste edozein eginbehar hartzen dituzte.

² Gizarte segurantzako sistemak koordinatzeari buruzko apirilaren 29ko Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 883/2004 (CE) Arautegia. EBAO, L 166, 2004ko apirilaren 30ekoa.

³ Gizarte segurantzako sistemak koordinatzeari buruzko 883/2004 zk. (CE) Arautegia aplikatzeko arauak onartzen dituen 2009ko irailaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 987/2009 Arautegia. EBAO, L284, 2009ko urriaren 30ekoa.

⁴ Batasunaren barruan langileek aske zirkulatzeari buruzko 2011ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 492/2011 (EB) Arautegia. EEEren ondorioetarako beharrezko testua. EBAO, L 141, 2011-05-27.

Gainera, Erresuma Batuak EB uztearen beraren kostuak osorik ordaindu beharko ditu, hala nola Batasunaren agentziak eta beste erakundeak birkokatzearenak.

Kalkulatzeko metodoa urteko kontu bateratu ofizialetan oinarrituko da (behar denean, behin-behineko kontuekin osatuta).

Erresuma Batuak Batasunaren aurrekontuarekin dituen eginbeharrak kalkulatzeko metodoa baliabide propioei buruzko Erabakian oinarrituko da, eta kontuan hartuko ditu EB utzi aurretik zeukan finantzaketa kuotaen datu historikoak.

Batasunaren aurrekontuan EB uztearen eragina moteldu ahal izateko ordainketa modalitateak adostu behar dira.

Akordioak hau jaso beharko du:

- Erresuma Batuak Batasunaren aurrekontuarekin eta Tratatuak ezarritako organismo eta erakunde guztiak dituen finantza eginbeharrak betetzeko ordaindu behar duen kopuru globalaren kalkulu bat. Kopuru global honek urteko doikuntza teknikoak izan ahal izango ditu.
- Erresuma Batuak egin behar dituen urteko ordainketen egutegi bat
- Batzordeak, Kontuen Auzitegiak eta OLAFek kontrolatzen dutela bermatzeko xedapen iragankorrak, bai eta EBJAren ebazteko eskumena bermatzeko xedapen iragankorrak ere, iraganean Erresuma Batuaren onuradunei jaulkitako ordainketei / ordaintzeko aginduei dagokienez eta EB utzi ondoko Erresuma Batuaren onuradunei egin lekizkiekeen ordainketei dagokienez, legezko konpromiso guztiak betetze aldera.
- EB utzi ondoren Erresuma Batuaren onuradunekin hartutako legezko konpromisoak, daudenei nahiz etorkizunekoak, buruzko balizko xedapenak.
- Batasunaren aurrekontuak edo erakunde, organismo edo funts berariazkoek euren gain hartutako pasibo kontingentei buruzko berariazko arauak.

3. Merkatuan sartutako produktuen egoera eta EBren zuzenbidean oinarritutako prozeduren emaitzak.

Legezko hutsunea saihesteko eta ahal den neurrian ziurgabetasunak uxatzeko, akordioak EB utzi aurretik merkatuan sartutako produktuen egoera argitu behar du, bai eta bidean dauden prozedurak ere.

3.1. Merkatuan sartutako produktuak. Akordioak ziurtatu egin behar du EB utzi aurretik Batasuneko zuzenbidearen arabera merkatuan legez sartutako produktu guztiak EB utzi ondoren eskaintzen edo zerbitzuan jartzen jarraitu ahal izatea, Batasunaren legediaren baldintzetan.

3.2. Lankidetzaren judiziala estatu kideen arteko auzi zibil, komertzial eta penaltan Batasuneko zuzenbidearen arabera. EB uzteko unean bidean dauden prozedura hauek EB utzi aurrean indarrean zegoen Batasuneko zuzenbidearen arabera ebazten jarraituko dela ezarri behar du akordioak. Arlo zibileko eta merkataritza arloko lankidetzan, EB utzi aurretik jaulkitako ebazpen judizialak onartuko direla eta une hartan aplikagarria zen Batasuneko zuzenbidearen arabera beteko direla ziurtatu behar du akordioak.

3.3. *Batasuneko zuzenbidearen arabera bidean dauden lankidetzak administratibo, polizial eta judizialeko prozedurak.* Akordioak:

- Batasuneko zuzenbideak arautzen dituen eta EB uzteko unean bidean dauden lankidetzak administratibo, polizial eta judizialeko prozedurei buruzko xedapenak eduki behar ditu (egiaztapena barne).
- EB uzteko unean bidean dauden ikerketa judizial eta polizialean eta prozesu penaletan informazioa eta datuak erabiltzeari buruzko arauak jarri behar ditu. Bai Erresuma Batutik datozen datuei bai EB27tik datozenei aplikatuko zaie, eta datuak babesteari buruzko arauak jaso behar ditu.

3.4. *Batasunaren prozedura judizial eta administratiboak.* Akordioak xedapen hauek jaso behar ditu:

- EB uzteko egunean Erresuma Batuari eta bertako pertsona fisiko eta juridikoei eragiten dietelarik, EBJAn ebatzi gabe dauden prozedura judizialei buruzkoak. Kasu horietan, EBJAk prozeduretan eskumena edukitzen jarraitu behar du ebazteko eta epaia emateko.
- Erresuma Batuari eta bertako pertsona fisiko eta juridikoei eragiten dietelarik, Batasunaren erakunde, organismo, bulego eta agentzietan izapidetan dauden prozedura administratiboak buruzkoak.
- EB utzi aurretik gertatutako egitatei dagokienez –Erresuma Batuari eragiten badiote (arau-hauste prozedurak edo estatu laguntzak, adibidez)–, EB utzi ondoren Batasunaren erakundeetan administrazio prozedurak hasteko edo EBJAn prozedura judizialei hasiera emateko posibilitateari buruzkoak.
- Diruzko eginbeharrak diren Batasunaren egintzen eta EB utzi aurretik edo bidean dauden prozeduretan EBJAk erabakitako/emandako epaien betearazi behar etengabeari buruzkoak.

4. Beste gai administratibo batzuk

Akordioak Batasunaren ondasunak, funtsak, aktiboak eta eragiketak, haren erakunde eta antolakundeak eta haren pertsonala (pertsonal erretiratua barne) eta euren familiak babesteari buruzko xedapenak jaso behar ditu, Batasunaren pribilegio eta immunitateei buruzko Protokoloaren arabera.

Erresuma Batuari dagozkion ondasunak eskualdatzen zaizkiola ziurtatzeko neurriak hartu behar dira.

Batasunaren erakunde, antolakunde, bulego eta agentzietako kideek (eta Batasunaren gainerako funtzionario eta agenteek) EBFTren arabera hartu dituzten eginbeharrak Erresuma Batuaren jurisdikzioan errespetatzen dituztela Erresuma Batuak bermatu dezala ere eskatu behar da.

5. Akordioaren gobernantza

Akordioak:

- Akordioaren arabera hartu diren konpromisoak benetan betetzen direla ziurtatu ahal izateko erakunde egitura bat sortu behar du.

- Akordioak jaso ez dituen ustekabeko egoerak sortzen direnean behar diren neurriak hartzeko eta, aldatu behar izanez gero, Batasunaren legediaren bihar-etziko aldaketak txertatzeko mekanismo instituzional egokiak eduki behar ditu.
- Desadostasunak konpontzeko eta akordioa ondorengo gaietan betearazteko xedapenak jaso behar ditu:
 - Batasuneko zuzenbidea etengabe aplikatzea
 - Herritarren eskubideak
 - Akordioaren xedapenak aplikatu eta interpretatzea (finantzen likidazioa, egitura instituzionalak hartutako erabakiak eta abar)

Gai hauetarako EBJAren eskumena eta Europar Batasunaren ikuskapen eginkizuna mantenduko dira. Batasuneko zuzenbideari ez dagokion guztian akordioa aplikatu eta interpretatzeko, desadostasunak konpontzeko mekanismo desberdin bat ezartzekotan EBJAk ematen dituen independentzia eta alderdikieriarik eza bezalako bermeak eskaini beharko ditu.

Batasuneko zuzenbidearen kontzeptu edo xedapenak badira, gai horiei buruzko EBJAren jurisprudentzia (EB utzi aurrekoa) barne dagoela ulertuko da. Akordioaren parte batzuetarako mekanismo desberdin bat ezartzen bada, xedapen bat erantsi beharko da EBJAren bihar-etziko jurisprudentzia (EB utzi ondorengoa) kontuan har dadin kontzeptu edo xedapen horiek interpretatzerakoan.

Negoiazioetarako prozedura

Batasunaren negoziatzaileak gidatuko ditu Erresuma Batuarekiko negoziazioak Kontseiluarekin eta bere organo prestatzaileekin lankidetzan eta etengabeko elkarrizketan. Kontseiluak eta Coreper-ek, 50. artikuluko Lantaldeak (LT) lagunduta, Batasuneko negoziatzaileari aholku emango diote, negoziatzeko gidalerro hauetan ezarritakoaren eta Europar Kontseiluaren orientazioen arabera.

Kontseiluak, negoziazio saio bakoitzaren aurretik eta ondoren, 50. artikuluko LTren bilera egingo du, Batasunaren negoziatzaileak kontsulta, informazioa eta beharrezko agiriak izan ditzan negoziazioetarako.

NEGOZIAZIOEN GARDENTASUNERAKO PRINTZIPIO NAGUSIAK

Erresuma Batuarekin laster hasiko diren negoziazioek aurrekaririk gabeko egoera bat adierazten dute, eta interes legitimoa sortzen dute herritarrengan, herri agintariengan eta Batasunaren kideetan. Negoziatioak behaketa publiko zorrotz baten mendean egongo dira.

Horregatik, oso garrantzitsua da gardentasunez ekitea, eta horretarako oinarrizko printzipio batzuk zehaztu dira:

- Batasunaren negoziatzailea herritarrengana, parlamentu nazionaletara eta Batasunaren kideetara hurbildu ahal izango da, eta modu puntualean informazio irisgarri



eta zuzena eman ahal izango die negoziazio errondetan inplikaturata dauden pertsoneri/eragileei.

- Europako Parlamentua garaiz eta erregulartasunez informatuta edukiko du Batasunaren negoziatzaileak (behar diren agiriak emanez). Gainera, txandakako kontseiluburutzak harreman erregularrak edukiko ditu Europako Parlamentuarekin Gai Orokorren Kontseiluaren bileren aurretik eta ondoren.
- Konstituzioak edo barne araudiak agiriak parlamentu nazionaletara bidaltzea eskatzen dien estatu kideek araudi nazionalaren eta Batasunaren araudiaren arabera egin ahal izango dute, betiere agirien irispide publikoari buruzko Batasunaren arauak errespetatzen badira.
- Hirugarren herrialdeek eta nazioarteko antolakundeek informazio eguneratua jasoko dute Batasunaren negoziatzaileak emanda. Kontseiluak eta bere organo prestatzaileek behar bezala jasoko dute horren informazioa.
- Gardentasunari eta agirien irispide publikoari buruzko arauak EBTren 50. artikularen mendeko negoziazioei aplikatu beharrekoak izango dira. Agiri batzuk "LIMITE" estatusa mantendu ahal izango dute.
- Europar Kontseiluaren orientazioak eta horien ondorengo bertsioak, bai eta negoziatzeko gidalerroak ere, jendearen eskura jarriko dira formalki onartu eta gero.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Nahiz eta oraindik ez den onartu Batasunaren agiri formalik negoziazio prozesuari aplikatuko litzaiokeen metodologiaz, Europako Batzordearen talde negoziatzailetik hurbil dauden zenbait iturriren arabera, 4 asteko ziklo zorrotzetan ekingo litzaieke negoziazioei. Bruselan egingo dira, nahiz eta Erresuma Batuak bileretako batzuk Londresen egiteko eskatu duen, eta Suitza bezalako lurralde neutroagoren bat haztatu omen den arren. Aurreratutako guztiak hilean behin argitaratuko omen dira.

4 asteko ziklo hori lau etapatan banatuta omen legoke:

- Barne prestaketa eta kontsultak
- Alde bien arteko iritzi trukea
- Negoziazioa
- Erabakitako printzipioen arabera txostenak aurkeztea eta publizitatea egitea.



BREXIT

